



Alkartasuna Fundazioak Kataluniako Erreferenduma ikuskatzeko CIEMEN erakundeak antolatutako nazioarteko ordezkaritzan parte hartu du

3/10/2017 Iria Epalza Markoartu

Alkartasuna fundazioak Kataluniako autodeterminazioaren inguruko erreferenduma ikuskatzen aritu da, CIEMEN erakundeak antolatutako nazioarteko ordezkaritza baten baitan.

Ongietorri internazionalista ekitaldia

Irailak 30ean, larunbata, arratsaldeko 7etan, Barcelonako *Institut del Teatre*-n ongietorri ekitaldia gauzatzen da, ordezkari guztien hitzartzearekin. Alkartasuna fundazioko kide Iria Epalza lehena izan zen 25 ordezkarien artean hitza hartzen. Afalostean, ordezkaritzak *Sants* auzoko Proa eskola bisitatu du. Bertan, eskolako gurasoek azaltzen dute **Escoles Obertes** (eskola irekiak) ekimena nola sortu den, eta nola antolatu diren eskolak asteburu osoan irekita mantentzeko, eta ostiraletik hauteskunde eskola izango zena "okupatzeko". Asteburu osoan zehar, Kataluniako milaka eskolatan "kurtso hasiera jaia" edo "Udazken jaia" bezalako ekitaldiak antolatu dira. Guraso eta irakaslean autogestioaren bidez antolatu dira, eskolak igandean irekita mantenduko zirela ziurtatzeko, bizilagunak laguntza logistikoa eskaintzen zuten bitartean.





Bazen poliziak eskolak itxiko zituen mehatxua. Horren aurrean, erakunde eta antolakunde ezberdinek goizeko 5etan eskoletara bertaratzeko deia luzatu dute. CIEMENeko zuzendari David Minovesen hitzetan, " beste hauteskunde batzuekin konparatuz,hemen garrantzitsuena ez da bozka kontaketa, baizik eskolak irekita mantentzea, eta bozkak eta hautestontziak babestea".




Dolors Sabater, Badalonako alkatearekin elkarrizketa

Urriak 1eko goizeko 7:45etan Sants geltokian dugu hitzordua, Badalonara joateko. Geltokirako bidean, hainbat eskola zeuden, pertsonarekin atarian. Badalonan Jaume Oliverasek egiten digu Cicerone lana. Militante historikoa, Jaumk *el punt avui*n badu zutabe bat. Lehen eskolara laguntzen gaitu; Can Casacuebierta. Ehundik gora pertsona

atarian, eskola noiz irekiko zain. Ilada antolatua dago; lehenik helduak edo egun horretan lan egin behar duen jendea. Besteak, euripean, itxaroten. Mosso bi daude ere inguruan, lasai askoan.



Jendeak albo batera egiten du gu pasatzen uzteko, eta txalo eta *graciés* artean hartzen gaituzte. Eskola barruan, badira hautestontziak, paperak, zentsoa, mahaiak egokituak daude, eta ahaldunak eta administrazioko ordezkariak prest daude. 9tan, sarreran ikusi ditugun bi Mossoak atera gerturatzeko saiakera egiten dute. Jendeak aurrera egitea ostopatzen die, eta denbora behar dute atera heltzeko. Behin bertan, jendetzak "votarem" eta "tots som responsables". Mossoak alde egiten dute jendearen txalo artean. 9:12tan lehen bozka ematen da eskola honetan, jendea hunkituta dago.



Beste eskola baten "*Pacte Local pel Referendum*"eko koordinatzaile batekin biltzen gara, azaltzen digunak nola lortu duten Badalonako 34 eskolak irekitzea, eta Badalonan (Kataluniako 3. herririk populatuena, 2015 eko ekainera arte Garcia Albiol PPko ordezkaria zela alkate, baina oposizioko talde guztiak bat eginda, En Comúko – 2. Indarra- Dolors Sabater izendatu zuten alkate) auzolanean oinarriturik, Erreferendumaren inguruko informazioa eta mobilizazioak egikaritzea.





Dolors Sabaterrek azaldu digu lehen orduan nola funtzionatzen dabiltzan eskolak. Guztira, 5 eskola ikuskatu ditugu goizean Badalonan. Ez da egon tentsio unerik, istilurik edo bozka paper faltarik. Momento batzutan bozkaketak eten egin behar izan dira, hori bai, Guardia Zibilak aplikazio informatikoa erausi duelako, eta beraz, zentsoa eskuz pasatu behar dute. Bai lanean eta baita itxaroten dagoen jendea aldarte onean dago, lasai, elkarren artean hitz egiten eta giro onean.



Catalunya Ràdio-ra bisita

Bartzelonara bueltan, Catalunya Radioko egoitzara goaz. Bertako zuzendari Saul Gordillo eta Rita Marzoarekin, "*Corporació Catalana de Mitjans Audiovisuals*"éko gobernu kontseilariarekin. Azaltzen digute nola bizi izan duten azken asteotan gertatutakoa: Gordilloren izena BOEan agertzea, beste hainbat goi kargurekin batera,

Epaitegi Konstituziogileak ondorio penalez ohartarazten, .cat fundazioaren domeinuen itxiera, ultren kontzentrazioak egoitza aurrean, ordena judizialik gabeko miaketak...

Gordillok eta Marzoak diote, kanpaina hau ez kubritzeko agindua etorri zaiela espainiar gobernutik, baina haiek, Kataluniako hedabide publiko gisa, eta Kataluniako jendearen irrati gisa (argi utzi zuten ez zirela Kataluniako gobernuko irratia, Kataluniako Herriaren irratia baizik) kanpainaz eta gertatzen ari zenaz informatu behar zutela erabaki zuten. Inoizko audientzia emaitzarik onenak izan dituzten azken asteotan, jendeak fidagarritasuna eta sinesgarritasuna eman dielako espainiar hedabide publiko edo kataluniar hedabide pribatuek zabaldu duten informazio partziala, interesatua edota kasu batzutan inexistentearen aurrean. "edo informatzen genuen, edo jendea twitterrera zioan informazio bila". Horrela, asteburu honetan, 24 orduz zuzenean igortzen ibili dira. **"Hauteskunde arruntetan gertatzen denearen kontra, hemen itxierari baino, lehen minututik informatzen aritu behar izan dugu". Gure presidentea kazetaria eta txiolaria izanda, guk ere informatzeko era aldatu behar izan dugu".**



Azkenik, arratsaldea l'Eixample edo zabalguneko eskolak ikuskatzen jardun dugu, ERC eta CUPeko zinegotziek lagunduta. Hauetako bat **Escola Industrial** izan da, Katalunia osoko eskola handiena izanik, bertan zeuden Europako ikuskariak, kazetariak... Bertan

izan dira goizean poliziaren kargak, eta bertan zegoen jendetza hautestontziak defendatzeko prest. Bozkaketak bukatu eta zenbatekoa igorri arte, jendea ez da hautes mugitu.





Herria, demokraziaren zaindari

Jende askorekin hitz egin dugu asteburu luze honetan zehar, eta gu geu izan gara lekuko nola jendetza mobilizatu den gizatasunez eta era baketsuan beren bozkatzeko eskubidea gauzatu ahal izateko, duintasun demokratikoaren irudia eskeiniz. Egunotan zehar, eskolak bilakatu dira Demokraziaren defendatzaile eta gotorleku. Jendea, herritarrak, gizartea ahaldundu egin da. Erreferenduma gauzatzea bakoitzaren lan gisa hartu dute, jakinik guztion arteko elkarlanean eta konfidantzan zegoela hau guztia ondo irrotearen gakoa. Beraz, oztopo guztien gainetik erreferenduma gauzatu ahal izana, bakoitzak lorpen eta beraz, garaipen propio bezala sentitzen du. Jada Erreferenduma edo *processa* bera ez da erakundetatik datorren inizatiba bat, baizik eta herritar bakoitzaren eginkizuna. Erreferendumaren defentsaren aldeko komiteak, auzo antolatuak, herri ahaldunduak lortu du urriak 1eko goizeko 8etarako, Kataluniako eskola guztietan bozkak eta paperak izatea.

Zentzu horretan, herritarrak beraiek harrituta daude lortu duten guztiarekin; eraikitzen ari diren errealitate berriarekin. Konturatu dira ahalmena badutela gauzak aldatzeko, eta beraz, Erreferendum gauean ez da dena bukatu. Duten indarrak jabetuta, dena hastear daude. Erreferendumetik iraultzara doaz; "Twitterreko iraultza", jendeak ere bertan gertatzen denaz zuzenean, filtrorik gabe, eta mundu guztiak ikus eta jakin dezan egiten baitute.

Horri esker, jakin dugu polizaren indarkeria bortitzaren berri; gomazko piloten jaurtiketen berri, ehundaka zaurituen berri, "No se ha celebrado ningún referendun" gezurren berri, hautestontzien lapurketen berri... Baina baita herritarren bake kulturaren berri, "Els carrers saran sempre nostres"en berri, eta Herri katalanak munduari erakutsi dion duintasun, irmotasun eta gizatasunaren berri.

CIEMEN eskertu nahi dugu bere gonbidapenagatik, eta gure babes eta elkartasunik beroena helarazi nahi diogu Herri Katalanari beren autodeterminazio eskubidea egikaritzean.

ⁱ Asteburuaren inguruko txioak, bideoak eta irudiak Alkartasuna Fundazioaren (@alkartasun) eta CIEMEN (@elciemen) erakundeen twitter kontuetan ikus daitezke.